

noaua

Kilometroak2015:
"Eskerrik asko eta zorte on bergararrei"

Lur berrien "okupazio izugarria" aurreikusten da Zubietan

Giza-katea, Aitzaga eta Marisa Alejandro libre izatea eskatzeko

Larunbat honetan 'Arrastoak' Sutegin

Teatroaren lilura



GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegi



Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



Etxena

Usurbilen,
auto tailer berria!

Ramon



Atallu

AUTOAK >>>>

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak

DOHAINEK

IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditzen

Sutea Andatzen

Andatzara begira egin genuen igandetik astelehenerako jauzia. Argitzeke dauden Arrazoiengatik, sua piztu zen azaroaren 8ko goizean. Arratsalderako guztiz itzalia zegoen sua. Baina iluntzean berpiztu zen zonalde berean. Indar handiz gainera. Zubieta eta Lasartetik nabaria zen karratu forma hartu zuen sutea. Kea eta erre usaina herri erdiguneraino ere heldu zen. Gauean zehar itzaltzeko lanak etengabekoak izan ziren. Nahiko lan izan zuten sutea kontrolatzen. Ez zuten oso lan erraza izan, sutan zegoen eremua aldapsua baita eta ez da oso erraza bertaratzea.

Astelehen goizerako kontrolpean zuten sutea, nahiz oraindik indarrean ziren foku txikiak guztiz itzaltzeko ordu dezente gehiago behar izan zituzten. Ikustekoa zen bestalde, ia Donostia alderaino zabaldu zen ke lainoa.

Sua guztiz itzaltzea lortu arren, ingurua zaintzen segitzekoak ziren. Sua berpiztu zitezkeen kezka bazuten eta. Gogoan izan beharrrakoa da, euririk ez duela egin azken aldian,



Ez zuten lan erraza izan, sutan zegoen eremua aldapsua baita eta ez da erraza bertaratzea.

eta lurra oso lehorra dago.

Sua itzalita, kalteen balorazioa egin eta

sutea zerk eragin duen argitzeko garaia da orain.

Laburrean

Tipi-Tapako zozketak, sarituen zain

Azaroaren 8ko brotxetadun pintxo festa amaieran eginiko zozketan, zenbakiok izan ziren sarrituak:

1. saria (150 euroko erosketa balea): 3614.
2. saria (2 laguntzako afaria): 5115.

KMK15eko Gure Zozketaren bigarren zenbakia

51.855 zenbakiarekin inor ez da agertu. Orain 2.689 zenbakia da, 60.000 euro tokatu zaizkion zenbaki saritua. Jabeak agertzeko hilabeteke epea du; abenduaren 5era arte. Zenbakiaren jabe bazara, deitu hona: 943 361 216.

Igeltseroa bost hilabetez kontratatzeko eskaintza

Usurbilgo Udalak 1. mailako ofizial igeltseroa kontratatu nahi du, 5 hilabetez eta aldi baterako. Izena ematea azaroaren 13an amaituko da. Hautaketa prozesua www.lanbide.eus web orriaren bidez zabalduko da.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Imanol Ubeda

Dena ez da lehia

Igandean izan zen. Behobia-Donostia lasterketako azken korrikalariak helmugara iristen ari ziren une horretantxe. Igande eguerdian, beraz. Zoragarri zegoen paseatzeko, eta halaxe nenbilen Artzabalen, Josurekin topo egin nuen.

“Eguerdion! Aurten ez al haiz Behobian atera?”. Antzekorik bota nion. Aurreko edizioaren batean elkar ikusi izan dugu helmugaratu berritan.

Ezetz. Aurten entrenatzeko denborarik gabe, ez ateratzea erabaki zuela. “Dortsalaren poltsa hartu nuen Urbilen, eta egun horretan bertan lagun bati oparitu nion”.

Bitxia. Gauza bera egin genuen anaiak eta biok. Azken

zazpi urteotan bezala, maiztzean eman genuen izena. Eta izena ematearekin batera hasten gara entrenatzen. Uda partean, saio luzeagoak egiten hasten gara eta, ikasturte berriarekin batera, ugaldu egiten ditugu korrika saioak. Baina aurten, beste kontu batzutan joan zaigu denbora, eta entrenatzeko astirik gabe, ez ateratzea erabaki genuen duela aste batzuk. Eta Josuk egin bezalaxe, urria amaieran Urbilgo Forumen korrikalariaren poltsak hartu eta guk ere oparitu egin genituen.

Korrika egiteko denbora duen jendeak inbidia ematen didala aipatu nion Josuri. Eta korrika egitearen abantaila ekarri zidan berak gogora: “korrika nabilenean ez nauk gaixotzen”. Eta arrazoirik ez

zaio falta. Katarro gutxiago harrapatzen ditut korrika aritzen naizen garaian.

“Gero oparitzeko bada ere, datorren urtean berriro apuntatuko gara”. Hitz horiekin agurtu nuen Josu.

Handik gutxira jakin nuen. Hildako lasterkari bat izan zela, hainbat lagun ospitalean... Bai, egia da. Demasako fenomeno bilakatu da *running*-a. Eta azken urteotan, eroen pare dabilta batzuk.

Datuak ere hor daude: 2008an, 16.300 izan ginen izen-ematea osatu genuenok. 2015ean, 34.000.

Baina behobiazaleen artean denetatik dago. Antzeko jendartea batzen den edozein kolektibotan bezalaxe.

Behobia-Donostiaren aitzakiarekin, anaiak eta biok kirol

pixka bat egiteko denbora hartzen dugu maiztzeak azarora bitarte. Izerdi pixka bat eginez, sanoago sentitzenko. Dena ez dela lehia. Lasterketan izena emateak diziplina moduko bat ezartzen digu guri. Nahikoa ondo antolatua eta atsegina egiten zaigun ibilbide batean aritzeko aukera ematen digu Behobia-Donostiak, bide batez esanda.

Lasterketa egunean, kronometrorik gabe ateratzen gara. Atera kontuak. Orokortzeko joera dugunez –eta ezbeharren bat ematen denean are gehiago–, esan beharra daukat: helmugara ondo antzean iritsi eta bapo bazkaltzearekin amesten dugu. Hori da gure helburua. Eta ez pentsa bi edo hiru bakarrik garenik.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

Kronika

Horrela bai!

Berrito ere gure herriko bi sarrertan dauden panelak txukun txukun agertu dira. Ez dakit lan hau herriko kuadrila egoskor baten lana izan den edo gure Udalak eginiko lana izan den, gure alkatea zubietarra izaki... Batzuk edo besteak izan, leku bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta hori kontutan hartzea beharrezkoa da. Saikola aldetik dauden paneletan Aginana Fracking-ik gabeko herri bezala azaltzen du eta horri zera gehitu beharko genioke, errausketaren aurka gaudela ere. Beraz jarrai dezagun lanean, elkarrekin badugu eta zer eginga, aurrean ditugun erronka guztiak erantzun bat eman ahal izateko, bai Usurbilen bai Aginagan.

Lontxo Zubiriak, Aginatik.



“Leku bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta hori kontutan hartzea beharrezkoa da”, hala dio Lontxo Zubiriak Aginatik.

Kilometroak2015: “Eskerrik asko eta zorte on bergararrei”

KMK15-ek, Gattunk urtea boroiltzeko kaleratu duten azken prentsa oharrean, esker hitzak helarazi nahi izan dizkiete urriaren 4an Usurbila etorritakoei, eta animu mezua aldiz, 2016ko Kilometroak jaia antolatzeko lekukoa hartu duen Bergarako Aranzadi ikastolari. “Udarregi Ikastolaren aldetik, antolatzaile guztiei eta urriaren 4an gurera etorri ziren euskal herritar guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu. Eta, horrez gain, azken mezu hau aprobetxatu nahiko genuke Bergarako Aranzadi Ikastolakoei zortetik onena opa eta animoak emateko, ostiralean eman baitzioten hasiera Kilometroak 2016 ekimenari”, berri eman dutenez.

Honez gain, urriaren 4ko jaialdiari loturiko zenbait emaitza plazaratu ditu KMK15-ek. Azken urtean zeharlerro izan eta sakon landu diren inklusibitate, parekidetasun eta jasangarritasunaren inguruko datuak. “Egunaren balorazio positiboa egin dute, oro har. Udarregiren hezkuntza ereduaren ere urrats handi bat eman da, eta horretarako tresna den erai-kin berriaren finantziatorako baliabide ekonomikoak lortzera bideratu da jaia”, ohararazi dutenez.

Eremuz eremuko balorazioari dagokionez, “Inklusibitatea landu duen Guztiok Gattunk batzordekoek adierazi dute sentsibilizazio lana egin dutela batez ere, eta jasotako erantzuna primerakoa izan dela; nahiz aitortu duten egiteko lan asko dagoela. Parekidetasunetik, berriz, gogorarazi dute Kilometroak ospatu bitartean ez zela salaketarik



Larunbatean eskertza jaialdia ospatu zen. Bazkaritan ia 500 lagun batu ziren.

BALORAZIO POSITIBOA

“Eraikin berriaren finantziatorako baliabide ekonomikoak lortzera bideratu da jaia”

izan [nahiz horrek ez duen bermatzen erasorik egon ez izana], baina gau horretan eraso sexista bat gertatu zela Usurbilen. Ezin dugu ahaztu, gainera, Nafarroa Oinezen sexu eraso salatu zuela adingabe batek. Horiek guztiak agerian uzten dute ikastolen jaietan ere neurriak hartu behar direla bide horretan”, gogorarazi du KMK15-ek.

Hondakinen %90,19 gaika bildu zen

Organikoa konpostatu, iturriko ura edatea sustatu edota edalontzi berrerrabilgarriak baliatzeko apustua

egin zuten urriaren 4an, KMK15-eko Ingurumen eta Garbitasun batzordetik. Guztia ahalik eta hondakin gutxien sortze aldera, eta sorturikoa ahal bezain beste birziklatzeko.

Ahalegin haren balorazioa plazaratu dute baita. Urriaren 4an, hondakinen %90,19 gaika bildu zen. Eta honenbestez, %9,81eko erreusa sortu zuen KMK15 jaiak, Ingurumen eta Garbitasuna batzordekoek adieraz eman dutenez.

“Hondakinen %90,19 gaika bildu ahal izan dituzte -6.990 kilo-, eta gainontzekoa, %9,81 izan da errefusa -760 kilo-. Ahalegin berezia egin dute organikoarekin, eta 6.990 horietatik 1.140 izan dira organikoari dagozkionak. Errefusa, berriz, 15 gramokoa da pertsonako, gutxi gorabehera. Hona datu guztiak, gaika:

- 1.160 Ontzi arinak.
- 1.180 Papera.
- 1.140 Organikoa.

- 3.024 Beira.
- 106 Olio.
- 380 Pankartetako plastikoa.
- 720 Errefusa.
- 40 Pardelak.

Erabilgarri zeuden edalontzien ia %86

Apustu berriek ere emaitza onak ekarri dituzte. “Edalontzi berrerrabilgarriak erabili eta berreskuratze apustua ere egin du taldeak: ibilbide barruan ezezik, herriko tabernek ere erabili dituzte edalontzi horiek. Guztira, erabilgarri zeuden edalontzien ia %86 berreskuratzea lortu dute. Iturriko urari dagokionez, esan daiteke ur botilen kontsumoak behera egin duela nabarmen: urriaren 4an, botila txiki eta handien artean, 3.500 soilik saldu ziren”, KMK15-ek berri eman duenez.

ARTZABAL
Baserría - Jatetxea

943 36 91 39
artzabaljatetxea.com

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Lur berrien “okupazio izugarria” aurreikusten da Zubietan

Erraustegia, kartzela, jarduera ekonomiko eta industrialerako gune erraldoia, errepide berri bat edota ia 1.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du etorkizunean Zubietan, Eusko Jaurlaritzaren Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak. Hasieraz onartua dute jada, eta alegazio epean da azaroaren 15era arte.

Alegazioak aurkeztuko dituzten artean da Usurbilgo Udala. Hala iragarri zuten udal ordezkariak, aurreko astean gai honen inguruan Potxoenean antolatu zuten mahai-inguruan, “Plan Orokorra ez baitator bat egungo errealitatearekin”. Xabier Arregi alkatearen esanetan, plan honen “diagnosia zaharkitua geratu da, beste baldintza sozioekonomikoetan egina



Donostialdeko Plan Partzialak eragin zuzena izango luke Zubietako lurretan.

dago”. 1997. urtean hasitako lanketaz ari gara. Geroztik ia 20 urte igaro dira eta oraindik, solasaldian gogorarazten zenez, “ez da tramitatzea lortu”. Eta plana bera sustatzen ari direnek ere ez omen dute oso argi “zer egin nahi den”. Horren erakusle, garai batean aurreikusiak zeuden hainbat proiektu desagertu dira.

“Ekimen erasokorrak” Zubietan

Udalen planeamenduen gainetik dago plan partzial hau. Behin betiko onartu ostean, “udalei inposatuko zaie”, mahai-inguruan gogorarazi zuten. Plan berri honek dakartzan ondorioez ere ohar-tarazten dute.

“Energia berriztagarriei buruz ez da ezer esaten. Degradatutako eremuak birsortzea, berrerrabiltzea eta optimizatzea ez da aurreikusten”, diote Udaletik. Aldiz, “lur berrien okupazio izugarria” aurreikusten da. “Oso ekimen erasokorrak aurreikusten dira Zubietarentzat”, alkateak ere esana duenez.

Alkatea bera, Jone Míner Usurbilgo Udaleko Plan Orokorren erredaktatzailea eta Maribi Joaristi Oiertzungo Udaleko idazkaria bildu zituen ekitaldian adierazi zutenek, Donostialdeko Plan Partzialak “hainbat lege eta printzipio ez ditu betetzen”. Lege eta printzipio hausteen harira aurkeztuko dituzte alegazioak. Udalak bakarrik ez, edonork aurkez ditzake erreklamazioak eta interesdun oro pauso bera ematera animatzen dute.

Donostialdeko Plan Partzialak proiektaturikoa

Landa eremua

-Andatza-Irisasi eta Mendizorrotz ingurua basogintzarako mantentzea.

-Aginaga eta Zubietako erriberak nekazal ustiapenerako eremuak izatea.

Oinezko eta bizikleta erabiltzaileentzako bideak

-Urbileraino jada egina dagoen bidegorria Usurbileraino luzatzea aurreikusten da; Txikiertitik, Ugaldea industriagune ondok Santueneara, eta handik, erriberatik barrena Txokoaldera. Txokoaldetik bi bide aurreikusten dira, bat Aginaga aldera, eta bestea, trenbide ondok Oriorantz. Zubietako egungo bidetik ere aurreikusten da oinezko eta bizikleta zaleentzako bidea San-

tueneara.

-Bide berri bat aurreikusten da bestalde, Zubietako Bugatititik, erraustegia eraiki asmo duten ingurunera eta handik Santueneara.

Errepideak

-Txikiertitik (N-634 errepidetik) Bugatiraino errepide berri bat aurreikusten da. Zubi berri bat eraikiko litzateke erria zeharkatzeko, eta Zubietako erriberatik barrena, hipodromo atzetik Bugatiraino luzatuko litzateke. Errepideak gero, Zubietan aurreikusiak dauden proiektu erraldioen zonaldera gorantz segiko luke.

Trenbide sarea

Kostaldea zeharkatzen duen trenbidea guztiz zabaltzeko, Usurbilgo zatia baino ez da falta. Plan berriak, zabaltze hori aurreikusten du. Eta aldaketa nagusi bat baita; Txokoalde-Orio artean tunelak eraikiko

lirateke. Honenbestez, trenbidea zuzendu eta lurpean geratuko litzateke Txokoalde inguruan.

Ur depositua

Zubietamendi atzean eraikiko litzateke, hau da, proiektu erraldoi guztiak aurreikusi diren zonaldean. Urbil ingurutik hartuko luke ura eta Erroizpeko urtegiarekin lotu asmo dute.

Azpiestazio elektrikoa

Linea berri bat proiektatua dago Zubietan aurreikusiak dauden proiektu erraldioen zonaldean, Andoain-Urnieta aldera.

Etxebizitza

-2025. urterako: 649-878 etxe eraikitzea aurreikusten da Zubietan (Landaberri ikastola inguruan).

-2015-2022 urte arterako: 1246-1686 etxe Lasarte, Usurbil, Zubieta,

Errekalde inguruan.

-2023-2030 urte arterako: 1920-2598 etxe Lasarte, Usurbil, Zubieta, Errekalde inguruan.

Jarduera ekonomikoak (143 hektarea eraikiak)

2030erako: 107-117 hektarea berri proposatzen dira jarduera ekonomikoetarako.

Aritzeta

Egun, Urbil-Belartza inguruko errotontatik gora, A-8 autopistarrantz jotzen badugu, ezkerretara, eraikiak dauden errepide artean bada triangelu formako lur eremu bat. Potxoeneko bileran aipatu zutenek, bere garaian Zubietara lekuz aldatu asmo zuten Loiolako kuartela, Aritzetako eremu honetara eraman asmo dute.

Informazio gehiago: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saileko web orria.

Giza-kate laranja larunbatean, Aitzaga eta Marisa Alejandro libre uztea eskatzeko

Hiruzpalau aldiz atzeratu ostean, finkatu dute 04/08 sumarioari loturiko epaiketa hasteko data. Astelehenean, azaroaren 16an abiatuko da Espainiako Auzitegi Nazionalan, Ezker Abertzaleko 35 kideren aurkako epaiketa. Auziperatuen artean da, Marisa Alejandro usurbildarra. Epaiketa salatu eta Marisari eta gainerakoei elkartasuna adierazteko mobilizazioak deitu dituzte astebururako herrietan, Libre ekimenaren baitan.

Usurbilen, Aitzaga ataritik abiatuko den giza-kate laranja deitu dute larunbaterako 19:00etan. Herritarrei zapi laranjekin bertaratzea deitzen zaie. Giza-kate amaieran ekitaldia deitu dute, "Aitzaga eta Marisa libre" lemapean. Mobilizazioak hain zuzen, Madrilan abiatzear den epaiketa eta konfiskatua izateko aginduaren zain diren herriko tabernen auzia lotuko ditu. Honenbestez, Marisari eta Aitzagari elkartasuna adierazteko mobilizazioa izango da larunbateko hitzordua. Azaroko azken astebururako ere bi auziok lotzen dituzten



Giza-katea deitu dute larunbat honetarako. 19:00etan Aitzaga ataritik abiatuko da.

04/08 auzia

"Marisa ia hiru urte izan zuten preso, 2010eko apirilaren 15ean, bera eta polizia operazio berean atxiloturiko beste 9 lagun bermepetan aske utzi zituzten arte. Aske geratu eta 5 urtera epaituko dute, beste 34 lagunekin batera"

ekitaldi gehiago deitzeakoak dira herrietan, Libre ekimenaren baitan.

8 urtera epaiketa

Baltasar Garzon epailearen

aginduz, 2007ko urriaren 4an Seguran Ezker Abertzalearen aurka izandako polizia operazioaren haritik dator azaroaren 16an hastekoa den epaiketa. Ezker Abertzaleko 23 lagun atxilotu zituen polizia espainiarrak duela 8 urte, tartean, Marisa Alejandro usurbildarra. Batasunaren mahai nazionala berriro osatu izana leporatu zitzaion. 23 lagunon etxeak eta EHAK alderdiaren egoitza maitu zituzten.

Egun haietan, atxilotetok salatzeako mobilizazio ugari burutu ziren bai Usurbilen, baita Euskal Herri mailan ere; tartean, jarraipen zabala izan zuen ordubeteko lan uztea egin zen.

Marisa ia 3 urte izan zuten preso, 2010eko apirilaren 15ean, bera eta polizia operazio berean atxiloturiko beste 9 lagun bermepetan aske utzi zituzten arte. Aske geratu eta 5 urtera epaituko dute usurbildarra, beste 34 lagunekin batera.

Aitzaga, konfiskatze aginduaren zain

Aitzaga eta beste ehunetik gora elkarte, konfiskatze aginduaren zain dira, ekainean Espainiako Auzitegi Gorenak, Herriko Tabernen aurka Auzitegi Nazionalak kaleraturiko epaia berretsi ostean. Epaiak ordea, ez zuen oso argi uzten, ez noiz ezta nola gauzatuko zen. Epaia ekainean kaleratu arren, momentuz zabalik segitzen du herriko tabernak eta elkarteen egoitzak. Herriko tabernen defentsak Auzitegi Konstituzionalan helegitea aurkeztekoak ziren. 12 urtetik gorako ibilbide luzea du auzi honek.

Lehen ere itxia egon da Aitzaga, sei urtez, 2006tik 2012ra. Itxia bai baina ez isildua. Egoitzarik gabe ere, aurtent 21 urte bete dituen elkar-teak bizirik eta lanean jarraitu baitu.

"Erraustegia erabakia" plataformaren sinadura bilketa

Erraustegiaren in- guruan Usurbilgo Udalarik kontsulta bat antolatzea eskatu nahi dion "Erraustegia Erabakia" plataformak lehen batzarra burutu zuen aurreko larunbatean Potxoenean. Bertan herri galdeketa jardun zuten, nola bideratu gaia.

Jada abiatu duten sinadura bilketari buruz ere aritu ziren. Aberasgarritzat jo



Sinadurak batzen hasi dira, Udalak kontsulta antolatu dezan.

zuten saioa, ekarpen anitz jaso zituzten eta. Usurbil-

go Udalarik herri kontsulta antola dezan eskatzeko

sinadurak biltzen hasi dira asteburuan.

Plataformarekin harremanetan jartzeko

Asteotan maiz ikusiko ditugu kalean. Ekarpenak egin, bilgunean parte hartu edo informazio gehiagorako, helbide honetan jarri zaitezke harremanetan herri plataforma berriarekin: erraustegiaerabakia@gmail.com

Gazte Eguna antolatu dute, azaroaren 21erako

Sare sozialen bidez zabaldu duten mezu batekin, hilaren 21erako herrian antolatzen ari diren Usurbilgo Gazte Eguna iragartzen ari dira: “Adi gazte! Usurbilen haizea harrotzen hasia da. Azaroaren 21erako zerbait ikusgarria dago iragarria”.

“Jokoak, mahai-ingurua, elektrotzarangaz giroturiko poteoa, gazte afaria eta kontzertuak izango ditugu egun guztian zehar. Herritar eta inguruko gazte oro gonbidatuak zaudete parte hartzera, izan Zubieta, Aginaga edo beste edozein herrietakoa. Gazte afaritarako txartelak eskuragarri daude jada, Irratin eta Aitzagan, 10 euroren truke”.

Honatx lotu duten egitaraua:

Azaroak 21, larunbata

■ 11:00 Jolasak frontoian.



Gau partean, Kezka taldekoek joko dute frontoian, Emon eta Erokomeri taldeekin batera.

■ 16:30 Gazte tailerrak Potxoenean.

■ Ondoren, hitzaldia: “LOMCE-EU 2015”.

■ Jarraian, Elektrotxufla elektrotzaranga.

■ 21:00 Gazte afaria frontoian. Txartelak salgai 10 eurotan, Aitzaga eta Irrati tabernetan. Zapiak egongo dira!

■ 23:30 Kontzertuak frontoian: Kezka, Emon eta Erokomeri.

Sutegi udal liburutegiaren “Aste borobila”

Azaroaren 2tik 7ra antolatu dituzten ekimenen inguruko balantze ezin baikorragoa egin du Sutegi udal liburutegiak. Hasteko, 10 urteotako ibilbideari lotuta, 100 mezu jasotzeko herritarrei luzatu zieten erronka bete dute. “Gaindituta! Milesker guztioi!”, liburutegitik adierazi dutenez.

Harrera ezin hobea izan zuen baita, Pello Añorgaren ipuin kontaketa saioak. 50 lagun gerturatu ziren. Jendetsua, ikusgarria eta ezberdina, Shakti Olaizola kontortsionistak azaroaren 5ean frontoian eskainitako “Irakurriz” izeneko emanaldia. Irakurzale-tasuna, dantza mugimendu ikusgarriekin uztartu zuen.



Shakti Olaizola, liburuez inguratua.

Azaroaren 4an, “Liburu/pelkula bat, euro bat” ekimena antolatu zuten. Liburutegian errepikatuak zituzten hainbat liburu edota DVD, salgai jarri zituzten euro batean. “Eskainitakoaren %70a inguru saldu genuen”, adierazi dute liburutegitik. Herritarrek emandako laguntza liburutegian inbertitzera bideratuko dute. “Ja-

sotako diruarekin dokumentu berriak erosiko ditugu. Beste behin, mila esker!”, helarazi nahi diete herritarrei.

Sutegi Udal Liburutegia

■ <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/?lang=es>

■ Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30; larunbatetan, 10:00-13:00 artean.

■ Telefonoa: 943 360 692.

■ Whatsapp zerbitzua (mezuak bidaltzeko soilik): 688 625 477.

■ Email: biblioteka@usurbil.eus

■ Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

■ Twitter: @usurbib

■ Instagram: sutegi05

■ [youtube.com/sutegi05](https://www.youtube.com/sutegi05)

Odol emaien bazkarirako izen ematea ireki da

Urtea borobiltzeko bazkaria antolatu du Usurbilgo Odol Emaien Elkarteak, ohi bezala, abenduaren 8an. Patri jatetxean ospatuko den otordurako izen ematea zabaldu dute. Apuntatzeko, deitu telefono zenbakiotako batera: 943 366 040/610 681 563 (Maite), 943 372 487/646 185 716 (Mari Sol), 943 370 723/678 242 132 (Jero), 943 363 102/688 887 537 (Agustina).

1952ko kinto bazkaria

Azaroaren 29an bilduko dira Patri jatetxean, arratsaldeko 14:00etan. Dastatuko duten otorduren prezioa, 36 eurokoa izango da. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 19ra arte. Apuntatzeko deitu 943 361 380 telefono zenbakira.

1972ko kinto bazkaria

Azaroaren 21ean Aratzen. Izen emateko 40 euroko ordainketa egin behar da kontu zenbaki honetan, azaroaren 13a baino lehen: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketa egiterakoan ez ahaztu izen abizenak adierazteaz.

1965eko kinto bazkaria

Azaroaren 21ean, larunbatez bilduko dira Olarrondo jatetxean. Izen emateko deitu bi telefono zenbakiotako batera: 627 271 215 (Montse) edo Ana (686 969 112).

Proposatu Inauteri Festarako gaia

Urruti den arren, hobe pres-taketa lanei garaiz ekitea. Konturatzerako hemen izango dugu eta, 2016ko Inauteri Festa. Otsailaren 6an, larunbatez, ospatuko dugu jaialdi koloret-sua. Datorren ediziorako mo-zorroa zuek erabakiko duzue. Eta zuk zertaz mozorrotu nahi zenuke? Hasi proposamenak helarazten, elkarte@noaua.eus helbidera. Edo idatzi zuen ideia, tabernetan jarriko ditugun zerrendetan.

BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek, azaroaren 12an

EGONALDIA ORIOKO AISIAN



ORIOKO Aisian 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT
+ zirkuitu termala + Pentsio ERDIA



ARRASTOAK ANTZERKIRAKO SARRERAK



AZAROAREN 14AN, LARUNBATA
ARRASTOAK ANTZERKIA IKUSTEKO
2 SARRERA BIKOITZ



noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

“Arrastoak”, teatroaren lilura

LARUNBAT HONETAN, DEJABU TALDEAREN ANTZEZLANAZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUGU

Azken urteetan hainbat antzezlanetan lanean ezagutu ditugu Dejabu Panpin Laborategikoak. Errautsak, Hamlet, Gizona ez da txoria, Gure bide galduak... Larunbat honetan, Arrastoak antzezlan eskaintzera hurbilduko dira Sutegira. Dejaburen lanetan ohikoa den moduan, hari nagusia istorio narratibo batek eramango badu ere, aktore jokoan oinarritutako lan fisikoak, poesia bisualak eta errealismo magikoak gauzatuko dute teatroaren lilura. Urko Redondo aktoreak eman dizkigu antzezlanaren inguruko xehetasunak.

NOAUA! Belaunaldien arteko lotura ikustezen horiei buruzko gogoeta planteatzen duzue “Arrastoak” antzezlanaren bitartez. Badu tragediatik, badu komediatik. Edukiari dagokionez, nola laburbilduko zenukete antzezlanaren mamia?

Urko Redondo. Antzezlanaren sor-tzen hasi ginenean galdera hau izan genuen motorra: gizar-te batean edo familia batean ixiltzen diren gauzak, tabu bilakatzen direnak, datozen belaunaldietan ba al dute eraginik? Eta noski, gure iritzia da baietz, ezkutuan gelditzen diren korapiloak berandu baino lehen askatu beharko ditugula. Emakumeek mendeetan jasan-dako biolentzia ere berehala agertu zen gai gisa.

Hori guztia mamitzeko Lur izeneko neska baten istorioa kontatzen dugu. Antzezlanaren hasten da Lurren ama hilda agertzen denean. Drogo-menpekoa zen eta Lurrek ez zuen apenas ezagutzen. Thriller baten moduan, bere iragana ezagutzuz joango da Lur, eta horrela, bere barneko korapiloak askatzen.

Orain arte egin dugun lanik konplexu eta potenteena da.

Tragedia, komedia, tragikomedia... Kazetariok etiketak ditugu maite. “Arrastoak” obra, zein generotan kokatu beharko genuke? Edo akaso zaila da genero bakar batera mugatzea, ezta?

Etiketek lagundu dezakete gauzak kokatzen batzutan baina ez dut uste oso egokiak direnik, azken batean norberak leku ezberdin batetik bizitzen baitu



“Lur izeneko neska baten istorioa kontatzen dugu. Antzezlanaren hasten da Lurren ama hilda agertzen denean”. Bere iragana ezagutzuz joango da Lur, eta horrela, bere barneko korapiloak askatzen.

URKO REDONDO

“Genero asko nahasten ditugu gure lanetan. Tragedia ikaragarri maite dugu. Baina komedia zale amorratuak ere bagara. Umorea oxigenoa da antzerkian eta bizitzan, eta beraz gure antzezlanetan beti leku handia eskaintzen diogu. Etiketak jartzen hasita, gureari teatro herrikoa ere dei dakiok”

esperientzia bakoitza.

Egia da hala ere guk genero asko nahasten ditugula beti gure lanetan. Horrela ateratzen zaigu. Tragedia ikaragarri maite dugu genero gisa, gai poto-

lo eta traszendentalak lantzea gustatzen zaigulako, kolektiboak, eta pertsonaiak erabaki handien aurrean jartzen ditugulako. Baina komedia zale amorratuak ere bagara. Umorea oxigenoa da antzerkian eta bizitzan, eta beraz gure antzezlanetan beti leku handia eskaintzen diogu baita.

Etiketak jartzen hasita, gureari teatro herrikoa ere dei dakiok. Gure imaginario kolektiboari lotzen saiatzen gara beti, erreferentzia gertukoekin eta emanaldi bakoitza erritual kolektibo batean bihurtzeko intentzio garbiarekin.

“Gure bide galduak” obran, zuen aurreko antzezlanean, elementu gutxirekin mundu oso ezberdina irudikatzen zenituzten. Ildo beretik dator “Arrastoak”?

Oso gutxirekin ahal den guztia egin edo kontatzea asko gustatzen zaigu. Irudimena ez-tandarazten digu horrek. Gainera uste dugu ikuslea antzezlanaren barrura gonbidatzeko modu bat ere badela, ikusleak berak osatzen baitu ikusten ez duena, bere irudimenarekin. “Arrastoak”en ere premisa horri eutsi diogu baina, hala ere, estetikoki eta antzerki linguaiari dagokionez, ezberdintasun handiak daude. Lan berri bati ekiten diogunean beti saiatzen gara ordura arte egin ez dugun zerbait egiten. Ezezaguna zaigun horrek erakartzen gaitu, ez dugu erremediorik!

“Arrastoak” antzezlanaren beste mugimendu-kualitate bat eskatzen zuen, beste dinamika bat antzezleen artean...

Donostia Antzerkia Saria jaso duen obra

NOAUA! Donostia Antzerki Saria jaso duzue obra honekin. Sari honek prestigioa du eta pentsatzen dut ikusgarritasuna eman-go ziola taldeari eta obra honi bereziki. Nola hartu zenuten saria eta zer suposatu du zuentzat? **Urko Redondo.** Poztekoa da beti sari bat jasotzea. Ikusgarritasunari dagokionez, noski sari batek medioetan gehiago agertzeko aukera ematen dizu eta horrek ere jendea eraman dezake antzokietara. Dena den, azken urteetako gure esperientziaren arabera uste dut benetan publikoa antzokira eramaten duena publikoa bera dela, hau da, ahoz ahokoa da azkenean jendea gehien mugiarazten duena.

“Arrastoak” antzezlaren azken saioak dira hauek. Bira amaieran zaudetela esan daiteke. Zer nolako balantzea egiten duzue?

Guretzat opari bat da antzezlana sortu eta hainbeste jende-



“Arrastoak” antzezlana Donostia Saria jaso du. Bultzada handia eman dio sariak obrari, baina Urko Redondoren ustez “ahoz ahokoa da jendea gehien mugiarazten duena”.

URKO REDONDO

“Opari bat da unibertso bat sortu eta ikustea ikusleak, norberak bere modura, unibertso hori bere egiten duela”

rekin elkarbanatu ahal izatea. Publikoarengandik jaso dugun

erantzuna oso beroa izan da egia esan.

Uste dugu antzezlana planteatzen dituen gaiak eta emozioek nolabaiteko mugimendua eragin dutela ikusleengan. Jendeak bere esperientziak elkarbanatu ditu gurekin, antzezlana kontatzen duenarekin identifikatuak sentitu direlako edota antzeko gertaerak

ezagutu dituztelako.

Eta guretzat ere emanaldi bakoitza oso berezia da, gure barneko emozio eta pentsamendu sakonenak hor doazelako gure pertsonaietan, kontatzen dugun istorioan...

Opari bat da unibertso bat sortu eta ikustea ikusleak, norberak bere modura, unibertso hori bere egiten duela. Oso eskertuta gaude esperientzia hauek bizitu ahal izateaz.

NOAUA! Kulturaldia Arrastoak antzezlana

- Eguna: Azaroak 14 larunbata.
- 20:00etan, Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro. Aldez aurretik 8 euro Lizardin, Artzabalen, Bordatxon, NOAUA!n. Bazkideek 6 euro (aldez aurretik eta NOAUA!n bakarrik).
- Antolatzailea: NOAUA!.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.

Solasaldi literarioa, Yolanda Arrietarekin

Gazteak eta Literatura. Nola hurbildu gaurko jendea klasikoengana? Nola hurbildu klasikoak gugana? Zer da Tradizioa? Zer da Historia? Zer da Transmisioa? Balio dezake fikzioak txangoak egiteko denboran, esandakoa osatuz, orain aldia biziz, geroa imajinatuz? Galdera horien bueltan arituko da Yolanda Arrieta.



Ostegun honetan, Potxoenean. Sarrera doan.

- “Argiaren Alaba: txango bat denboran”. Euskadi Literatura Saria irabazi duen liburua hartuko du abiapuntu.
- Azaroak 12 osteguna.

- 19:30ean.
- Sarrera doan.
- Potxoenea, goiko solairua.

Joseba Larratxeren margolanak ikusgai

10 urte bete dituen Sutegi udal liburutegira gerturazten bazarete, zer irakurri, baina zer ikusia ere aurkituko duzue egunotan. Joseba Larratxeren lan bilduma bat topatuko duzue. NOAUA! Kulturaldiari esker, 2013-15 urte arteko sortze lan bilduma ederraz gozatu ahalko duzue larunbata bitarte, Sutegin.



Larratxeren lanak Sutegiko Udal Liburutegian daude ikusgai.

- Joseba Larratxeren lanak.
- Azaroak 15 bitarte.
- Sutegi Udal Liburutegian.
- Astean zehar: 10:00-

13:00/16:00-19:30.
Larunbatean: 10:00-13:00.

Ostiral honetan, bertso-afaria

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenetaraino heldu diren Ane Labaka lasartearekin eta Asier Azpiroz zubietarrarekin hitzordua dugu ostiral iluntze honetan 21:00etan, Artzabalen antolatu dugun bertso-afarian. Onena ematera datoz, animatu beraz hitzordura. Ekitaldiaren bezperatan, azken txanpara heltzen ari den bertso txapelketako garailea nor izan daitekeen aurreratu digute lerrootan, baita nola elkar ikusi diren azken saioetan.

Hautagairik baduzue abendua-ren 19an txapela janzteko?

Ane Labaka: Beñat Gaztelumendi. Aurrekoan, Oreretan txapelketan berarekin abestuen eta indartsu ikusten dut.

Asier Azpiroz: Beñat Gaztelumendi. Bi aldiz bigarren geratua dago. Euskal Herriko Txapelketako finalean ere kantatua dago. Gaztea da oraindik, pauso sendoko ibilbidea egin duen bertsolaria da, oso segurua. Faboritua bera izango dela uste dut. Jon Maia ere hor dago bigarren gaztaro batean.



Asier Azpiroz, Andoaingo saioan (Argazkia: Gipuzkoako Bertsotzale Elkarteak).

Eta gero aipatuko nituzke, Alaia Martin eta Agin Laburu.

Nola elkar ikusi zarete txapelketan?

A. L.: Asier oso indartsu ikusi dut, oso beretik. Duela lau urte bere estiloa hartzen ari zen bertsolari moduan ikusten nuen, orain Asier Azpiroz bera ikusi dut kantuan eta oso gustura entzun dut. Oso fresko, natural, oso beretik kantatzen. Berak bertsolaritzan egin nahi duen bide hori egiten.

A. A.: Ane ondo, oso bertsolari segurua da. Edozein txapelke-

ta edo herrietako saioetan beti berea kantatzen duen bertsolaria da. Finalerdietara sartzea lortu izan balu, seguru paper oso ona egingo zuela eta gainera, bada Buruntzaldean, Lasarten oso pertsona erreferentea, ez bakarrik bertsolaria delako, baita saltsa askotan parte hartzen duelako. Eskualdeko bertsolaritzari mesede izugarria egin dion pertsona.

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fase bat baino gehiago, bertsolaritzak bizi duen osasunaren isla izan dela diote. Ados zaudete?

A. A.: Baietz esango nuke. Gipuzkoa Bertsotan ekimenak eman du aukera bertsotara txapelketara animatuko ez zen jende hori animatzeko. Bestela baino askoz saio gehiago sortu dira. Horrek eman die udalerritxiki pilo bati, saioak antolatzeko aukera. Ahalegin berezi bat egin da, gai-jartzaile eta epaile berriak aurkitzeko.

A. L.: Guztiz ados. Zuzenean txapelketa izanez gero, animatuko ez ziren bertsolari askok parte hartu zuten lehen aldiz, Gipuzkoa Bertsotan ekimenean.

NOAUA! Kulturaldia Bertso afaria

■ Eguna: Azaroak 13 ostirala.

■ 21:00etan, Artzabalen.

■ Parte hartzaileak: Asier Azpiroz eta Ane Labaka bertsolariak, eta Iñaki Agirresarobe gai-jartzailea.

■ Menua: aperitiboa, entsalada epela, entrekota patatekin, azkenburukoa, edaria eta kafea.

■ Txartelak: 18 euro (aldez aurretik salgai, Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!n).

■ Antolatzailea: NOAUA!

■ Babeslea: Usurbilgo Udala.

Herriko ondarea ezagutzeko ibilaldia

Aurrekoetan sortu duen interesa ikusita, Usurbilgo herri ondarea ezagutzeko aukera aparta izango dugu, beste behin ere, Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik. Honakoan, Arratzainetik abiatu eta Aginaga aldera gidatuko gaitu. Bidean, besteak beste, Tontortxikiko tumulua bisitatzeko aukera izango dugu. Baina Aginagako gainkaldeak gordetzen dituen altxor gehiago ere ezagutuko ditugu.

■ Azaroak 15 igandea, goizeko 10:00etan Arratzainetik abiatuta.

■ Ibilbidea: Arratzain-Aginaga.



Jakoba Errekondok gidatuko du igande honetako solasaldia.

■ Arratzainera igotzeko autobus zerbitzua izango da, 09:30ean Bordatxo paretik. Izen-ematea ostiralera arte, 943 360 321 te-

lefonora deituz edo emailaz: elkartea@noaua.com. Oinez joan nahi duenak 10:00etarako egon beharko du Arratzainen.

Jende asko Mikel Urdangarinen saioan

Ehundik gora lagun bildu zituen ostiralean Sutegin eskaini zuen kontzertuak. Auditorioa, gutxitan bezala, ia guztiz bete zuen. Bakarlari gisa egiten ari den lehen birako emanaldian, hain ezagunak dituen kantuak abestu eta abesti bakoitza bere testuinguruan kokatzen aritu zen.



100dik gora lagun batu ziren.

Txerriaren Festa Zubietan

AZAROAREN 22AN EGUN OSOKO JAJA OSPATUKO DA, ZUBIETAKO PILOTA ELKARTEAREN ALDE

Igaro berri den asteazkenak azaroak 11 zituen, San Martin Eguna. Iraganean egun seinalatua, etxe eta baserri askotan; txerria hiltzeko jai eguna izaten baitzen. Usadio zahar hau galtzen joan den honetan, ohitura hau gogorazari, berreskuratu eta jendarteratu asmo du Zubieta Pilota Elkartek azaroaren 22rako antolatzen ari den Txerriaren Festan.

